

AURKEZPENA

Lan Harremanak aldizkariaren zenbaki honen gai monografikoa honako hau da: «Berdintasuna eta diskriminaziorik eza lan harremanetan, generoa dela medio». Olga Fotinopoulou irakasleak argitalpenaren edukia eta helburua azaldu ditu. *Lan Harremanak* aldizkariaren Erredakzio Kontseiluaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiet Fotinopoulou irakasleari eta monografikoa idatzi duten guztiei, artikuluko interesgarri hauek gure aldizkarian argitaratzea proposatu izanagatik.

Monografikoaren zortzi artikuluez gain, beste batzuk ere badaude. José Ignacio Armentiak, José María Caminosek eta María Flora Marínek idatzitako artikuluko euskal komunikabideek heriotza eragiten duten lan-istripuen trataeran izandako bilakaera aztertzen du, Bizkaian 2001ean eta 2009an izandako heriotzak erreferentzia gisa hartuta. Ondorio hauek atera dituzte: denbora-tarte horretan ez da funtsezko aldaketarik izan; formatu ia hegemonikoa berriarena da, eta oso gutxi sakontzen da heriotza ekarri duen istripuaren zergatietan, aurrekarietan edo ondorioetan.

Mertxe Larrañagak, Yolanda Jubetok eta M.^a Luz de la Calej Europar Batasuneko emakumeen lan-partaidetzako ereduaren aniztasuna aztertu dute, eta emakumeen laneratzearen ezaugarriak haiek herrialde bakoitzeko lan-merkatuetan duten partaidetza mailarekin lotu dituzte, honako hau zehazteko: emakume gehiagok lan egitea «emakumezkoen» lan-eredu batekin lotuta ote dagoen (hau da, lanaldi partzialeko enplegua, behin-behinekoa, ordainsari txikikoa eta sektore nahiz lanbide jakin batzuetara mugatua duen eredu batekin), edo, aitzitik, emakumeen enplegu-tasa altuagoa eta gizonezkoei begirako alde txikiagoa duten herrialdeetan emakumeen eta gizonen laneratze-eredua antzekoa ote den. Egileek egiaztatu egin dute oraindik ere badirela genero-desberdintasunak, desberdintasun klasiko batzuk itxuraz aldatzen ari direla (esaterako, ordainsarien aldea murriztu egin da, baita alderantzikatu ere, eta enplegu-tartean ere izan dira aldaketak), zenbait harreman argiak direla (prestakuntza mailak emakumeek lana lortzeko garaian duen garrantzia, besteak beste) eta familiako erantzukizunek emakumeen eta gizonen lan-partaidetzan eragin desberdina dutela. Iraunkorrak

diren eta Europar Batasuneko herrialde guztietan dauden desberdintasunen artean, honako hauek nabarmendu dituzte: emakumeek gutxiago parte hartzen dute lan-merkatuan; lanaldi partziala nagusiki emakumei lotutako eredia da; lanbidearen araberrako bereizketak egiten dira, eta emakumeek ordainsari txikiagoak jasotzen dituzte.

Olga Fotinopoulouk gaixok EB barruan duten zirkulazio askea eta osasun-arretagatiko gastuen diru-itzultzea aztertu ditu. JAren interpretazioaren arabera, oro har gaixok modu askean zirkulatzeko duten eskubidearen alde egiten zen, zerbitzuen emate askean eta, ondorioz, osasun-arretaren gastuak bueltan jasotzeko eskubidean oinarrituta. Hori kontuan hartuta, erkidegoko agintariak 2011/24/CE Zuzentaraua sustatu dute, arlo horretako segurtasun-falta juridikoa konpontzeko. Artikuluak aipatutako JAren jurisprudentzian oinarritutako Zuzentarau horren edukia aztertzen du.

Claudia Andrea Moragak Txileko 20.545 zenbakidun legearen ondorioak aztertu ditu. Lege horrek amatasunaren babesari buruzko arauak aldatu ditu, eta jaio osteko guraso-baimena ezarri du. Egileak ondorioztatu duenez, lege horrek txiletar gizartean ezarrita dauden genero-rolak sendotzen ditu, eta kalte egiten dio emakumeen kontratazioari, batez ere erantzukizun eta prestakuntza handia eskatzen duten lanpostuei begira.

Lan Harremanak aldizkariaren Erredakzio Kontseiluak atal irekian aldizkariaren gaiarekin lotutako aipamenak sartzearabaki du. Zenbaki honetan, Sara de la Pintak Carlos Ochandoren *El Estado del Bienestar* (Ariel arg.) lanaren gainean egindakoa sartu dugu.

Azkenik, jakitera eman nahi dut zenbaki honetatik aurrera utzi egingo dion dala *Lan Harremanak* aldizkariaren zuzendari izateari. Eskerrak eman nahi dizkiet dagoeneko hamahiru urte dauzkan proiektu honetan lagundu duten guztiei. Hemendik aurrera, M.^a Nieves Arrese Iriondo izango da zuzendaria. Zeregin horretan arrakasta handia izatea opa diot.